

MIRESGARRIA HEZKUNTZA KOMUNITATE OSOKO LANGILEON LANA AURTEN, BEJONDEIGULA!

Ikasturtea gogorra izan da hezkuntza komunitate guztiarentzat eta mirestekoa Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Gizarte Ekimeneko nahiz Nafarroa Garaiko itunpeko ikastetxeetako langileok egindako lana ikasturtea aurrera ateratzeko; baina jasandako presioa ez dela bidezkoa salatzen du LAB sindikatuak.

COVIDa dela eta ikastetxeetan hartu diren osasun neurrien eraginez, aurtengoa ikasturte berezia izan da Euskal Herriko ikastetxe guztietan, baita Hego Euskal Herriko bi administrazioetan ere: EAEko Gizarte Ekimenean eta Nafarroa Garaiko Itunpekoetan.

Agintariak ezarritako neurriak direla eta, ikastetxeetako egunerako jardunean aldaketa ugari eta gogorak egin behar izan ditugu hezkuntza komunitateko kide guztiok eta gogor saiatu gara lan pedagogiko txukun bat egin ahal izateko ikasturte honetan, gainera saiakera horretan osasuna utziz batzuetan.

Gizarte Ekimeneko nahiz Itunpeko langileok presio handiz eta tentsioz bizi izan dugu ikasturtea, lan karga izugarri handitu zaigulako; egin beharreko tramite administratiboak ugaltu direlako; etengabe ikastetxeko eraikin eta altzarien garbiketan jardun behar izan dugulako; ezarritako prebentzio neurriak bete arazteaz arduratu garelako; ordutegiak ordezkapenez bete zaizkigulako askotan; gelako ikasleez gain, etxean zeudenen egoerara egokitu behar izan dugulako eta haiei ere aparteko jarraipena egin; postontzi elektronikoko gurasoen zalantza eta beldurrei erantzuten aritu behar izan dugulako orduz kanpo eta askotan etxetik; eguneratzen joan diren protokoloetako neurriei adi egon behar izan dugulako; askotan urduri eta beldurtuta zeuden gurasoen kexuak behin eta berriro entzun behar izan ditugulako, erasotua izatera ere iritsi garelako; klase emateko espaziorik gabe geratu garelako; atsedendiak ere irakas saio bihurtu ditugulako batzutan; gaueko loa ere galdu dugulako hainbatetan. Eta lan karga guzti hori, proiektu pedagogiko berriak aurrera atera ditugun bitartean. Berez gogorak diren lan baldintzak bereziki okertu zaizkigu. Ikasturte honek asko exijitu digu langile guztioi eta gure onena eman dugu zerbitzu orokorretakook, ikasleen zaintzaileok, administrazioakook, irakasle ez garen tituludunok, hezkuntza orientatzaile eta aholkulariok, begiraleok, hezitzaileok, irakasleok, haurtzaindegiko teknikari espezialistok eta laguntzaileok, langileen ordezkari eta komiteetako kideok...

LABen izenean, hezkuntza komunitate guztiari aitortza egin nahi diogu egindako ahaleginagatik, ez gara makalak, bejondeigula! Baina badakigu horrekin ez dela nahikoa eta datorren ikasturtean merezi dugun duintasunezko ogibidea izateko, bai **Gizarte Ekimeneko eta Itunpeko ikastetxeetako titularrei** eta baita **Eusko Jaurilaritza eta Nafarroako Gobernuari** ere, zera eskatzen diegu: **aurten gertatu denaz jabetu eta beharrezko neurriak hartzea**. Horretarako, jasandako lan zama, presioa eta tentsioa neurtuko dituen azterketa psikosozialak ikastetxetxe guztietan egin eta neurri zuzentzaileak martxan jartzea exijitzen dugu. Langileok ezin dugulako presio eta tentsio maila honekin beste ikasturte batez jardun. Guk egin dugu ikasturtea duintasunez aurrera ateratzeko beharrezkoa zen ahalegin guztia, orain, zuei dagokizu

ADMIRABLE EL TRABAJO DE LXS TRABAJADORXS DE TODA LA COMUNIDAD EDUCATIVA ESTE AÑO ¡BEJONDEIGULA!

El curso ha sido duro para toda la comunidad educativa y admirable el trabajo realizado por lxs trabajadorxs de Iniciativa Social de Araba, Bizkaia y Gipuzkoa y de los centros concertados de Nafarroa Garaia para sacar adelante el curso; pero el sindicato LAB denuncia que la presión sufrida no es justa.

Como consecuencia de las medidas sanitarias adoptadas en los centros escolares con motivo del COVID, este año ha sido un curso especial en todos los centros escolares de Euskal Herria, así como en las dos administraciones de Hego Euskal Herria: en la Iniciativa Social de la CAV y en las Concertadas de Nafarroa Garaia.

Debido a las medidas impuestas por las autoridades, todos los miembros de la comunidad educativa hemos tenido que realizar muchos y duros cambios en la actividad diaria de los centros escolares y hemos intentado hacer un buen trabajo pedagógico durante este curso, incluso dejándonos a veces la salud en el intento.

Tanto lxs trabajadorxs de Iniciativa Social como lxs de la Concertada, hemos vivido el curso con mucha presión y tensión, debido al aumento de la carga de trabajo; a la proliferación de trámites administrativos; a la constante limpieza de los edificios y mobiliario del centro; a la responsabilidad por el cumplimiento de las medidas de prevención establecidas; a que se nos han llenado los horarios de sustituciones en muchas ocasiones; a que además de lxs alumnxs de clase, hemos tenido que adaptarnos a la situación de lxs que estaban en casa y hacerles un seguimiento extraordinario; a que hemos tenido que atender las dudas y miedos de las familias también en los buzones electrónicos fuera de horario y muchas veces desde casa; a que hemos tenido que estar atentxs a las medidas de los protocolos que se han ido actualizando; a que nos ha tocado muchas veces tener que escuchar reiteradamente las quejas de familias que estaban nerviosas y asustadas, y hemos llegado incluso a ser atacadxs; a que nos hemos quedado sin espacio para dar clase; a que hemos convertido los descansos en horas lectivas; y hasta hemos perdido el sueño de noche. Y toda esa carga de trabajo, mientras hemos sacado adelante nuevos proyectos pedagógicos. Este curso nos ha exigido mucho a todxs lx trabajadorxs, y hemos dado lo mejor de nosotrxs: el personal de administración, el de servicios generales, lxs cuidadores del alumnado, lxs tituladxs no docentes, lxs orientadores y asesores educativos, lxs monitores, lxs educadores, lxs profesores, lxs técnicos especialistas y auxiliares de guardería, lxs representantes de lxs trabajadorxs y lxs miembros de los comités...

En nombre de LAB, queremos hacer un reconocimiento a toda la comunidad educativa por el esfuerzo realizado, ¡no somos nadie, bejondeigula! Pero sabemos que con eso no es suficiente y para tener el oficio digno que nos merecemos el próximo curso, les pedimos tanto a los **titulares de los centros de Iniciativa Social y Concertados** como a los **Gobiernos Vasco y Navarro, que sean conscientes de lo que ha ocurrido este año y tomen las medidas necesarias**. Para ello, exigimos la realización de estudios psicosociales que midan la carga de trabajo, la presión y la tensión soportadas en todos los centros educativos y la puesta en marcha de medidas correctoras. Porque los trabajadores no podemos actuar con este nivel de presión y tensión un curso más. Nosotrxs hemos hecho todo el esfuerzo que era necesario para sacar dignamente el curso ¡ahora, les toca a ustedes!